


SAROIAK

Saroien jatorria zein den ez dago garbi, baina kultura megalitikoarekin eta paganismoarekin lotuta daudela esan daiteke. Herri-sailak izan dira gehienetan, borobilak ia beti, eta artzaintzaren jarduerarekin lotuta egon ohi direnak. Larre-tokiak baino, gehienbat ardiak gordetzeko guneak izango ziren ziur asko. Lur sail hauek mugatuta egongo zirela uste da, harresi batez edo, baina hori ziurtatu gabe legoke. Dirudenez, saroi hauetako asko udaran baino ez ziren erabiliko.

Baziren, ordea, lur-sail pribatuak ere, Ahaide Nagusiei, jauntxoei atxikituak gehienetan. Zizurkilgo herriak hamaika eztabaida eta auzi izan zituen San Millan markesekin saroien neurriak eta erabilera zela eta.



Era askotara deituak izan dira. Gaztelaniazko jatorria lukeen SELA; KORTA, Bizkaia aldean; SAROBEAK edo SAROIAK, Gipuzkoan; OLAK, Iparraldean....

Saroien ezaugarriarik nagusienetakoa borobilaren erdi-erdian, ardatzean, izaten zuen mugarria dugu. Harri hauek izen asko hartu dituzte: austerritza, austerrri, artamugarri... Austerrri hauek goiko aurpegia landuta izaten zuten, lau, zortzi... erradio zizelkatuta irudikatzen zutelarik. Zizurkilgo artamugarrietan baieztatu daitekeenez, erradio hauek bat egiten zuten lau puntu kardinalekin (I-H-E-M).

Austerrien funtzio nagusia saroi neurtzea izango zen. Bertatik luzatzen zen saroiaren hedadura adieraziko zuen soka, zirkunferentzia markatzeko bezala (ikus goiko irudia). Gehienetan zortzi bazter-mugarri markatzen ziren, borobilaren antzekoa osatuz. Neurtzeko unitate bezala ez zen metroa erabiltzen, GORABILA baizik. Unitate honek, gutxi gorabehera, 14 bat metro neurtzen zituen, tokian-toki aldatzen bazen ere.

Saroiak, gehienetan, bi neurritakoak izaten ziren: saroi handiak, 12 gorabilekoak, hau da, 164 m-ko erradioko borobila zutenak, eta saroi txikiak, 6 gorabilekoak, hau da, 82 metrokoak. Gipuzkoan azaldu dira, hala ere, 18 eta 24 gorabileko saroiaren arrastoak.

Zizurkilgo behintzat hiru saroiaren aztarnak ditugu:

- Azarolan, Selako gainekoa (1) [UTM (ED50): 30T 5735674786855]
- Ezkeltzuko, (2) [UTM (ED50): 30T 5746924787546]
- Sanmillansarobe sailekoa (3) [UTM (ED50): 30T 5742164787686]

Hiru saroi hauek gorde dute bere austerrri edo artamugarria. Zalantza izpirik gabe esan daiteke askoz gehiago ere izango zirela Zizurkilgo. Erreparatu besterik ez dago herriko toponimiari: Sarobe baserria dugu, sarobe hitzez osatutako hainbat leku-izen ezagutzen dira... Baina hiru dira soilik gaurdaino iraun dutenak. Kontu eta arreta handiz zaindu beharko genituzke.

Gehiago jakiteko:

Ezinbestekoa da Luis Mari Zalduaren lanak jarraitzea (www.saroiaketakortak.com/ adibidez). Interesgarria da, baita ere, Xabier Cabezón-en lana (www.leitzaran.net/seles/seles.htm).

